

erabiltzen dituen bekadunak eta zabor kontratuak aratu beharko lituzke. Horretarako beste bide bat hartu beharko litzateke. Ez dugu ezer kalitatearen kontra, baina bere azpian gordetzen diren gauza askok kezkatzen gaitu.

3.- Euren burua Salabururen jarraitzaile huts bezala agertzen dutenak ez dira gure hautagaiak; hala ere, ondo bereizten dugu Manu Monterok esan nahi duena (euskaraz erabat baztertuta geratuko dela, funtzionarioen eskubideak azken muturreraino eramango dituela...). Beste bien kasuan ez ditugu haien programak eztabaidatu, baina desberdintasun itzelak ikusten ditugu Gallastegi eta Perez eta Monteroren artean.

CCOO

1.- Pello Salabururen agintaldia trantsizio agintaldia izan da, aurrekoaren jarraipena. Lan gogorra Pello Salabururen agintaldiaren aurrekoek egin behar izan zuten, haiei egokitu zitzaiezen unibertsitatearen bidea egonkortzea.

2.- Irakasleen soldata osagarriak eta AZPren finkatzea dira aurreko taldeak egin ez dituen lanak, eta datorren errektoreak egin beharko ditu. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren kasuan lan eskaintza publiko ora indik finkatu gabe egotea iritzi publikoaren aurrean defendaezina den auzia da.

Irakaskuntzaren kalitateari ere heldu behar zaio. Taldeak txikitu behar dira, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak hobetzea ahalbidetzeko.

Gestio akademikoa eta baliabideen gestioa dira jorratu beharreko beste arlo bi. Gogoratu behar da unibertsitateak ez duela marketin sortzaile izan behar, jakintza, garapen eta ikerketa sortzaile baizik. Baliabideen kudeaketa eraginkor bat behar dugu irakaskuntzari eta ikerkuntzari lagundu ahal izateko.

3.- Une delikatua bizi dugu, eta badago arrisku bat: unibertsitate politikaren menpe geratzea. Menpekotasun horrek erakundearen unibertsaltasuna estal dezake. Guk, ordea, apustu egin nahi dugu diskurtso zabalen alde, ez ditugu diskurtso endogamikoak onartzen.

ELA

1.- EHUko errektoradutzaren aldaketa garai hauetan Pello



EHUren euskalduntzeak errektore berriaren erronken artean egon behar luke, jasotako iritziaren arabera.

Salabururen jardueraz balorazio laburra egitean, erabateko aportazio gabekoa izan dela esatera ausartuko ginateke. Kanpora begira irudia zaintzeak, komunikabideetara behin eta berriro jotzeak ezkutatu egin du ez zaiela aurre egin EHUren arazoei: Salaburuk ez du eztabaidarik, barne negoziatorik, proposamenik edo barne egokitzerik bultzatu.

Trantsizio garaia izan da zoritxarrez, gizarteak proposamen eta ausardia beharra zuenean.

Egia da azken urteetan barne giroa baretu dela, baina gizartearen gertatu diren aldaketen ondorioz eta, batez ere, barneko zenbait kolektiboren ahultasun eta nekean oinarrituta izan delakoan gaude.

2.- Talde berriak izan beharko lituzkeen erronken gainean hitz egiterakoan, honakoak azpimarratuko genituzke: barne antolakuntza, ikasketa berriei aurre egitea, euskal adarraren eskaerei erantzutea, euskal hezkuntza eta euskal funtzio publikoan barnerratzeko aldarrikapenei aurre egin beharra.

ELAren aldetik, eskatuko diogu aurre egiteko irakasle eta ikertzaileen eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren egonkortasunari, lan baldintzen homologazioari eta negoziazio kolektiboari.

3.- ELAk ez du hautagai bat edo besteren aldeko iritzia plazaratuko, bere bileretan hala erabaki duelako.

EILAS

1.- Argi-ilunak ikusten ditugu Pello Salabururen agintaldian. Hasieran eta amaieran aldaketa izan dela uste dugu.

Argiez hitz egiterakoan, euskalduntze plana eta hura

aurrera ateratzeko egin zen eztabaida prozesua leudeke. Adostasun osoa ez zen lortu, baina horretarako saioa egin zen. Irakasleen egonkortasunera jotzeko lehen urratsak ere egin dira.

Iluna izan da, aldiz, akordio sindikalak ez betetzea eta lehen garaiko klaustrotan ikasleekiko izan duen jarrera.

2.- Euskal Herriko unibertsitatea euskal guzartean txertatzea da dagoen erronka garrantzitsu bat. Euskal gizartean azken boladan izan diren aldaketa positiboak, bestalde, EHUra ere iritsi behar dutela uste dugu.

Euskara plana betetzea da beste erronka garrantzitsu bat. Uneotan geratuta dago irakasleen kontratazioaren

arloa, baina uste dugu hori betetzea garrantzitsua dela. Gazteleraz mintzatzen direnak bezain eroso sentitu behar dute euskaldunek unibertsitatean.

Irakasle irudi berria sortzea ere beharrezko jotzen dugu. Unibertsitatearen Antolamendu Legea gaindituko duen irakasle irudi berria. AZPren langile taldearekin ere aurerrapausoak eman behar direla uste dugu.

3.- Guk ez dugu gure hautagaiak, oso zaila delako gure ikuspegiarekin bat egingo duen katedradun bat bilatzea, baina uste dugu errektore berriak izan behar duela euskalduna eta negoziazio kultura bultzatzen duena, eta, noski, nabarmendu ditugun erronkekin bat egiten duena.

Sindikatu bezala ez daukagu alde aurretik bozketari begira ezarritako jarrera jakin bat.

Ikasle Abertzaleak

1.- Salabururen kudeaketa negargarria izan da. Gure ustez, gainera, EHUk atzerapauso nabarmenak eman ditu bere agindupean. Espainiako Gobernutik egin den lege bati baiezkua emanda, Madrilera bideratu du unibertsitatea.

Bestalde, ez dugu aurerrapausorik ikusi euskalduntzeari dagokionean. Bigarren normalizazio plangintzari ekin zaio Salabururen agintaldiaren amaieran, bost urteko atzerapenaz. Gogorazi nahiko genuke, era berean, ikasle sektore jakin baten kriminalizazioa ere jasan dugula azken agintaldian.

2.- Bi erronka nagusi aurrekusten ditugu datozen urteetarako. Alde batetik, unibertsitatearen egungo esparrua gaintzea izango litzateke bata. Ezarri duten esparrutik kanpo, Euskal Herri mailako barruti baten alde egin behar dela ikusten dugu. Bestetik, bigarren erronka nagusia euskal adarraren garapen osoa izango litzateke. Unibertsitate eredu propio bat eratzeari beharrezkotzat jotzen dugu; inguruko unibertsitateen kopia izan ordez, eredu propio bat aldarrikatzea.

3.- Hiru errektoregaitatik inork ez du aldaketa kualitatiborik planteatzen. Gure eskabideei lotu zaion bakarra Miren Zabaletaren hautagaitza sinbolikoa izan da. Beste hautagaien aldetik ez dugu borondaterik ikusten eztabaidarako, eta unibertsitatean dauden beste sentsibilitate batzuen adierazle izango den boza emango dugu.

LAB

«Gure unibertsitateak eskuduntza guztiak izan behar ditu. Horrek esan nahi du UAL gaintzea behar dugula; esparru berria behar du unibertsitateak»

CCOO

«Trantsiziozko agintaldia izan da. Lan gogorra aurrekoek egin zuten, haiei egokitu zitzaiezen unibertsitatearen bidea egonkortzeko betebeharra»

EILAS

«Euskara plana geratuta dago irakasleen kontratazioaren arloan, eta hori betetzea izan behar du datorren errektorearen erronkatariko bat»

ELA

«Salabururen agintaldia erabateko aportazio bakoia izan da; eztabaidarik, negoziatorik, proposamenik edo barne egokitzerik bultzatu ez duena»

IKASLE ABERTZALEAK

«Unibertsitatearen egungo esparrua gaintzea eta euskal adarra garatzea dira errektorearen erronka nagusiak»